

HITZAURREA

Hirugarren Katalogo hau, zeinarentzat hitzaurre labur bat eskatu didaten, funtsezko aldaketekin ageri da aurrekoekin konparatz gero, bai zehaztasun historikoari dagokionez eta bai deskribapen teknikoaren alderditik. Maisu-lan hau Ramiro Larrañaga eta Juan L. Calvó Pascuali zor diegu, biak bait dira adituak zein bere gaian.

Funtsezko aldaketa hau formazkoa baino areago da mamizkoa, katalogatze modernoaren arabera egokitzen, terminologia zehatza, laburra erabiliz eta nonahi onartua den kodifikatze estandarizatua. Beste museo batzu, eta armagintzan espezialista eta adituak direnak interesatuko dira katalogo honetaz. Bihoa aurretiaz obra on delako kalifikapena. Horregatik, bada, hitzaurregile gisa lasai eta atseginez uzten nau jakiteak hitzaurre honek ez duela deskribapen-testuak duen eskakizun-maila bera, bestela lanak izango bait nituzke autoreek lortu duten mailaren parean neure burua jartzeko. Irakurlea ohartuko da nik baino askozaz hobeto azaldu dituzten gaiak jorratzen hasteko asmorik ez dudala. Horregatik, aurreko hitzaurreetan ezarritako bideetatik ibiltzea besterik ez dut egingo, ohar soil batzu eskaintzeko baizik ez bada ere.

Jakina, «gure milaka urtetako industria Museorik gabe, historiarik gabeko gizadia bezalaxe litzateke», 1914ean, inauguratzerakoan argitaratutako Katalogoaren hitzaurrean argi ta garbi aitortzen zenez. Baina testu hura irakurtzean konturatzen gara prestatzaileek ez zutela ezagutzen lau urte lehenago agertua zen Gregorio de Müjicaren *Monografía Histórica de la Villa de Eibar* obrak eskaintzen zuen industri historiari buruzko edukin dokumentala.

Haientzat Isidro Soler-en zirriborro zaharkituan zegoen mamitua historia. Eta obra hau, egia esateko, ez da batere parte onekoa euskal armagintzaren historiarako oro har, eta are gutxiago XV. mendearen bukaeratik Markina Garaian (Marquina de Suso) halako indarrarekin garatu zenerako.

Informazio-gabezia hau, zoritzarrez, oraindik nahikoa zabaldua dago, zenbaiten kasuan, nahiz eta *Síntesis histórica de la Armería Vasca* (1981) obra hor izan, ikus daitekeenez—etxeko obra bat baizik ez aipatzearen—*Atlas de Euskal Herria* (1982)-ren 155. orrialdean. Museo hau sortzen ahalegindu ziren aitzindari haien barkamena merezi dute Garibai eta Etxaberena bezalako testuez ohartu ez diren historialariak oraindik ere badiren bitartean. Guk geure aldetik ekin egingo diogu behin eta berriz. Euskal Antropologiazko III Astean (1973) agindu genuenez, gure armagintzaren erreuibindikazio bidezkoen alde, ohore guztiak justiziaz dagokion lehentasuna izan dezan. Simon Markuarte Karlos V Enperadorearekin Espainiara heldu baino askoz lehenagotik, Plaentzian, Eibarren eta beronen eraginpeko eremuan ongi finkaturik zegoen suzko arma garraigarriak fabrikatze-industria, eta ezin liteke isilpean gorde begibistakoa den hau.

Aitortzen ditugu geure akatsak. Handienetako bat zera da, ez hemen ez beste museoetan, aintzina egindako arma bakar bat ere ez izatea da, hau da, XVIII mendeaz aurrekorik. Baina dokumentuek ezin ukatuzko frogak eskaintzen dizkigute, eta hor dago zenbait artxibotan ageri den dokumentumordoa, Simancasen nagusienik.

Guztiz tamalgarria zaigu geure materiala gordetzeari dagokioneko hutsune hori, zeren eta tipologiak, teknikak eta kalitatea hobeto ezagutzeko erraztasuna eskuratu bait zigukeen, bertan egoteaz gainera. Eta badu nekea hau argitzeak. Baliteke hau, ikerketa-faltaz gainera, azalpen simple batek argitzea—erabat asebetegarria ez bada ere—aurrerapenen eraginak metxatik txispara eta hemendik pistoirako aldaketen transformazioa izatea kausa, mekanismo berri eta modernoagoak arma zaharrei ezartzearen. Kainoa zen giltzarria, forjan egiten zena altzairu batituz edo ferraz. Honela lortzen zen arma arin eta gogorrak egitea. Horregatik pieza honetan gertatzen dira beste edozeinetan baino aldaketa gutxiago denbora igaro-ala.

Gauzak ongi egiten erabilitako kalitatea eta ardura izan dira gure industriaren seriotasuna garantizatzen zuten ezaugarriak. Garibaik goraipatu zituen haren bikaintasunak, baina kalitate-eskakizunei buruz ezagutzen dugun daturik garrantzitsuenetako bat eta baita fabrikazio-xehetasunei buruzkoa ere baliteke 1568an Burgosko Kontzejuak Plaentziarekin egin zuen tratu hora izatea 200 arkabuz eskatuz, ezaugarri teknikoak zehatzuz honela adieraziz, «arkabuz-kainoiak burdin onez errebotxatuak izan daitezela kamaran...kaxak edo kuliandak intxaur zur onez, ihar eta ez hezez eginak izan daitezela...eta baketak lizarrezkoak izan daitezela eta ongi zepilatuak...» (Burgosko Udal Artxiboa, Ref. 10. apal. 6. taul 6. Kax.). Beste erakustale bat, bi mende geroagokoa, Jovellanosek Eibar bisitatzean egindako goraipamenak dira, eta zehatzago esateko, ehizerako eskupeta eta arzoiko bi pistola hartzean, berak Juan Esteban Bustinduyri, 1796an enkargatuak, Arias de Saavedrarentzat zeinak lan on eta betegintzat jo bait zituen, printzeen dinakotzat.

Beste zenbaiten artean, gogoangarria da 1929an, Madrid-eko Arturo Fernández-ek aurkeztutako mostra Barcelonan Nazioarteko Erakusketa Nagusian «El Arte en España» izenpean egin zen hartan; XXIX aretoan jarri ziren agerian eskupeta eta pistolen artean, 20 ale artistikoki landuak, XVIII eta XIX mende bitartean Plaentzia eta Eibarko armaginen eskuetatik irtenak. Zer dakigu gaurregun arma horien gordelekuaz?

Horra hor museo batek bete beharreko helburuetako bat, bertako armagintzari buruzko datu-banku egin, Deba arroaren inguru osoa eta Durangaldearen parte bat ere kontutan hartuko lukeena..

Aspaldiko adiskidea dudan Julio Sarasuak, 1964ean bigarren Katalogoaren hitzaurrea egitea suertatu zitzaióna, arrazoiz agertzen zen Museo bizi baten aldeko eta horretarako bere idea ongi pentsatuen berri ematen zuen, gogoraziz museoek ez dutela izan behar inola ere erreferentzia material hutsezko lekuak, baizik eta lokarri espirituallezkoak belaunaldien artean: «Zeren eta herri baten aurrerabidea ez bait da gertaera bapateko, doaneko eta halabeharrezkoak, abagadune ustegabeko eta apetatsuen arabera sortua, baizik eta lan kontziente, jator eta adimenezkoari zor zaion saria». Erabat bat nator iritzi honekin eta neure aldetik esango nuke gainera, museo moderno batek helburu didaktiko bat betetzeko prestaturik egon behar duela, bisitariak ahalik eta gehien probetxa dezan (zeren eta azken finean bertako industriarentzat atergabeko publizitate bihurtzen bait da), eskolarentzat behar bezala pentsatu eta estudiaturiko programarekin, zeina aldi berean osagarri izango bait da, Armagintz Eskolaren luzapen gisa, armen bilakaera teknikoa erakus ahal izateko bitarteko audiobisualez hornitua, eta, azkenik, armagintz historiarekin ikerketa-zentru, gai honi buruzko artxibo eta liburutegi batekin.

Ez da asko eskatzea gauzarik garrantzitsu eta baliotsuenaren jabe denarentzat: objektu materialezko fondoarena. Honetarako laguntza bikaina eskainiko du oraingo sailkapenak, eta horregatik eskerrak eman beharrean gaude Juan L. Calvó Pascual-en lan adituari, eta historiari dagokionean Ramiro Larrañaga plaentziarrari, zeinekin aspaldidianik zorretan bait gaude eibartarrok, bai onginahiz eta bai gure historia hain gurea eta hain ahaztua den hori berreskuratzeko eskaini dituen ekarriengatik.

Museoa, ondasunez aberatsa bada ere berez, orain Katalogo baliotsu honen jabe da, oinarri sendoa agertu eta proposatu dudanerako.

Juan SAN MARTIN

PROLOGO

Este tercer Catálogo, para el que se me solicita un breve proemio, se presenta sustancialmente cambiado de los precedentes, tanto en su aspecto de precisión histórica como en la descripción técnica. Su magistral elaboración se la debemos a los amigos Ramiro Larrañaga y Juan L. Calvó Pascual, expertos en cada materia.

Un cambio esencial operado más en profundidad que en forma, al objeto de ajustar a una catalogación moderna, con terminología precisa y concisa y una codificación universalmente estandarizada. Otros museos, especialistas y estudiosos de la armería se han de interesar por él. Vaya por adelantado la calificación de una obra buena. Por consiguiente, en mi calidad de prologuista, me tranquiliza y satisface que este proemio no cuente con las mismas exigencias del contenido del texto descriptivo, pues de lo contrario me vería en dificultades para poder emularles al mismo nivel alcanzado por sus autores. El lector se percatará de que no pretendo abordar asuntos que mucho mejor que yo han sabido exponer los autores. Por ello me limitaré a discurrir, aunque no sea más que con simples indicaciones, por las líneas trazadas en los anteriores prólogos.

Ciertamente, «nuestra industria milenaria sin Museo equivaldría a la humanidad sin historia», como categóricamente se manifestaba en el prólogo al catálogo editado en 1914, con motivo de la inauguración. Pero la lectura de aquel texto nos muestra la prueba evidente de que los responsables en su confección ignoraban el contenido documental que sobre la historia industrial aportaba la *Monografía Histórica de la Villa de Eibar*, de Gregorio de Mújica, que apareció con cuatro años de antelación.

Para ellos la historia se cristalizó en el trasnochado bosquejo de Isidro Soler. Obra, por cierto, nada halagüeña para la historia de la armería vasca en general y menos para la que con tanta pujanza se desarrolló en la primitiva Marquina de Suso desde las postrimerías del siglo XV.

Esta deficiencia informativa, por desgracia, sigue siendo común, en algunos casos, a pesar de las citas documentales contenidas en la obra *Síntesis Histórica de la Armería vasca* (1981), como se puede comprobar —por citar alguna obra de casa— en la página 155 del *Atlas de Euskal Herria* (1982). Aquellos pioneros que contribuyeron a la formación de este Museo quedan excusados mientras existan historiadores que no se hayan fijado en los textos de Garibay y Echave, entre otros. Por nuestra parte seguiremos insistiendo, tal y como nos propusimos en la III Semana de Antropología Vasca (1973), por una justa reivindicación de nuestra armería, por su prioridad, con todos los honores que por justicia le corresponden. Desde mucho antes que Simón Marcuarte llegara a España con el emperador Carlos V, en Placencia, Eibar y su área de influencia estaba ya bien asentada la industria de fabricación de armas portátiles de fuego, y no podemos silenciar un hecho tan evidente.

Reconocemos nuestras propias deficiencias. Una de las mayores es la de no disponer en este museo una sola arma de las producciones antiguas, anteriores al siglo XVIII. Pero los documentos nos revelan irrefutables pruebas, y ahí está el cúmulo documental existente en varios archivos, muy principalmente en el de Simancas.

Resulta lamentable esa deficiencia de conservación de muestra material que nos hubiera facilitado un mejor conocimiento de las tipologías, técnicas y calidad, además de esa presencia material. Un caso difícil de explicar. Posiblemente obedece, además de a la falta de investigación, a esta sencilla explicación: a las transformaciones que se efectuaban en las llaves por imperativo de los adelantos que exigieron los cambios de mecha a chispa y de ésta a pistón, al objeto de dotar de nuevos y más modernos mecanismos a las viejas armas. El cañón constituía una de las piezas clave, y se realizaba mediante la forja de acero batido, cuando no de herrerías. De este modo se obtenían armas livianas y resistentes. Por consiguiente es la pieza que menos transformaciones ha tenido en el transcurso del tiempo. El resto ha sufrido constantes cambios.

La calidad y el esmero puesto en el bien hacer, han sido las características garantes de la seriedad de nuestra industria. Garibay cantó las excelencias de la misma, pero uno de los datos más importantes que conocemos sobre las exigencias de calidad y detalles de fabricación puede ser el de aquel contrato de 200 arcabuces que hizo el Concejo de Burgos a Placencia en el año 1568, determinando las características al señalar «que los cainones de arcabuzes sean de buen fierro rreforçados en la cámara... las caxas o cureñas ayan de ser buena madera de nogal seca y no verde... y que las vaquetas ayan de ser de fresno bien acepilladas...» (Archivo Municipal de Burgos. Ref.: Est. 10 Tab. 6. Caj. 6.) Otra muestra, a dos siglos de distancia, son los halagos de Jovellanos en su visita a Eibar, y más concretamente al recibir la escopeta de caza y dos pistolas de arzón que él mismo se las encargó a Juan Esteban de Bustinduy, en 1796, con destino a Arias de Saavedra, que las calificó como obra perfecta, digna de príncipes.

Entre otros efectos conviene considerar la muestra presentada por Arturo Fernández, de Madrid, en la magna Exposición Internacional de Barcelona, celebrada en 1929 bajo la denominación de El Arte en España. En la sala XXIX se expusieron, entre escopetas y pistolas, nada menos que una selección de 20 unidades artísticamente labradas, salidas de las manos de armeros de Placencia y Eibar entre los siglos XVIII y XIX. ¿Qué sabemos hoy del paradero de las mismas?

He ahí una de las misiones a cumplir por un museo, incorporando un banco de datos de la armería propia, extensible a todo el contorno de la cuenca del Deva y parte del Duranguesado.

Mi viejo amigo Julio Sarasua, a quien cupo la misión de redactar el prólogo al segundo catálogo, en 1964, abogaba razonadamente por un Museo vivo y expuso para ello sus acertadas ideas, puntualizando que los museos no pueden ni deben ser lugar de meras referencias materiales, sino vínculos espirituales a través de las generaciones: «El progreso de un pueblo no es un fenómeno súbito, gratuito y casual alconjuro de caprichosas y fortuitas conyunturas, sino más bien el premio merecido a una labor consciente, honrada e inteligente». Juicio con el que me identifico plenamente y me permite añadir por mi parte que, además, un museo moderno debe estar montado para una función didáctica de manera que aproveche al máximo el visitante (que a fin de cuentas viene a ser una publicidad permanente para la industria local), con programa pedagógico debidamente pensado y estudiado para los escolares, que al propio tiempo sea un complemento, como prolongación de la misma Escuela de Armería, dotado con medios audiovisuales para enseñar la evolución técnica en las armas y, por último, centro de investigación de la historia armera, con un archivo y una biblioteca sobre el tema.

No es mucho pedir cuando ya se dispone de lo principal y más valioso: su fondo de objeto material. Contribuirá eficazmente a ello la presente clasificación, que hemos de agradecer a la experta intervención de Juan L. Calvó Pascual; y en lo correspondiente a la historia al placentino Ramiro Larrañaga, con quien los eibarreses tenemos contraída una larga deuda, tanto por su afecto como por la serie de contribuciones para la rehabilitación y mejor conocimiento de una historia tan nuestra y tal olvidada.

El Museo, rico de por sí materialmente, cuenta ahora con este valioso Catálogo, base firme para lo expuesto y propuesto.

Juan SAN MARTIN